GZ

GIZARTERATUZ
monografikoak

BEHATUZ
GIZARTE ZERBITZUEN
EUSKAL BEHATOKIA



Haurren bermea: desabantailen zikloa haustea

2022 | AZAROA

Aurrerapausoak Euskadin haurren eskubideak bermatzeko

Haurren pobrezia eta bazterketa prebenitzeko eta gaitz horiei aurre egiteko Europar Batasuneko Kontseiluaren gomendioz sortu zen Haurren Eskubideen Europako Bermea (HEEB), pobrezia edo gizarte-bazterketa pairatzen duten familietako haurrei eta nerabeei funtsezko zerbitzuak eta eremuak bermatzearren (AROPE adierazlea), batez ere ahulezia eta gizarte-bazterketa jasateko arrisku berezia dutenei.

Zehazkiago, haurren ahulezia sozioekonomikoari aurre egitea du xede Haurren Eskubideen Bermeak, ikuspegi integrala erabiliz horretarako, hau ziurtatzeko Europako neska-mutiko guztiei: haur-hezkuntza eta haurren arreta, doakoa eta kalitatekoa, hezkuntza eta osasun-arreta, elikadura egokia eta orekatua, eta etxebizitza duina. Ekimenaren sustatzaileen iritziz, oinarrizko bost behar horiek ekintza-plan nazionalen eta europarren bitartez asetzen badira, nabarmen hobetuko dira gizartetik bazterrera geratzeko arriskuan dauden haurren bizi-baldintzak eta aukerak. Berariazko arreta egiten die HEEBak bereziki ahulak diren haur-taldeei; besteak beste, etxerik gabekoei eta alor horretan gabezia larriak dituztenei, desgaituei eta osasun mentaleko arazoak dauzkatenei, migratzaileen seme-alabei eta gutxiengo etnikoetakoei, batez ere ijitoei, ordezko harrera-erregimenenean daudenei (bereziki erakunde publikoen babespekoei) eta familia ezegonkorretan bizi direnei.

Espainiako Haurren Eskubideak Bermatzeko UNICEFen Ekintza Planen Oinarrien txostenak dioenez, aukera aparta da ekimen horren aplikazioa haurren pobreziaren aurka borrokatzeko, eta aurrerapauso handia haurrei buruzko ekinbideak politika publikoetan argiro eta osorik txertatzeko. Ekimenaren eragina hobetzearren, bi behar edo lehentasun azpimarratzen ditu UNICEFek, Espainiako Estatuari zein EAEri dagokienez: alde batetik, ekimen horien kudeaketari dagozkion alderdi guztiak zaindu behar dira, eta erakundeek garatutako politikekin bat datozela ziurtatu, helburuen koherentzia bermatu eta dauden lankidetza-mekanismoak aprobetxatu.

Hona HEEBaren helburuak lortzeko bigarren baldintza, bereziki garrantzitsua eta beharrezkoa: osotasuna erabiltzea irizpide gisa esku-hartze guztietan. Izan ere, HEEBaren bidez bermatu nahi diren eskubideen alorrak bereiz ez jorratzea da kontua, baizik eta denak elkarrekin koordinatuta eta lotuta direla (esate baterako, haurren elikadurari buruzko programak osasun-agintariekin elkarlanean antolatu behar dira, eta hezkuntza-sistemaren bidez hedatu). UNICEFen txostenaren arabera, HEEBaren aplikazioan arreta berezia egin behar zaio intersekzionalitateari. Izan ere, zenbait ahulezia- eta diskriminazio-mota jasateak ahuleziak metatzea dakar berekin; hori dela eta, bazterketa jasateko arriskupean dauden haur guztiak artatzea izan behar du helburu orokorra eta, aldi berean, bereziki zaurgarriak diren haur- eta nerabe-taldeen bizi-egoera espezifikoei erantzuteko mekanismoak baliatu.

Aurrerapausoak Euskadin

Legealdi honetarako Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Programak ezarritako ekintza-lerro baten ardatza honako hau dugu: haurren eskubideak bermatzeko programa bat bultzatzea, haurren pobreziari aurre egiteko estrategia orokor baten funtsezko elementu gisa, Europar Batasunaren gomendioei jarraikiz, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta hobetuz euren kargura seme-alabak dituzten familiei. Testuinguru horretan, haurren pobreziaren aurkako borroka esparru zabalago batean txertatzeko ahaleginean ari da Eusko Jaurlaritza, eskubideak eta aukera-berdintasuna bermatzeko programa bat prestatzen.

Ekimen hori Haur Bermearen Euskal Estrategian gauzatuko da, gaur egun Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila prestatzen ari baita. Estrategia horren helburua da esparru bat eta orientabide orokor batzuk ezartzea, eta, ondoren, erakunde eskudunek dagozkien plangintza-tresnetan gauzatuko dituzte.

Haur Bermearen Euskal Plan hau bat dator euskal erakundeek aldez aurretik onartutako beste ekimen batzuekin, hala nola

Familien eta Haurren aldeko Euskal Itunarekin. Itun honek familia-politikekin lotzen ditu haurren pobrezia, haurren arteko desberdintasun sozialak eta pobrezia belaunaldi batetik hurrengora erreproduzitzea; zehazki, umeak izateko adinean diren jaiotza-defizitarekin. Izan ere, sarritan arrazoi ekonomikoak direla medio, zenbait jendek ez du umerik izaten, edo ez nahi adina, edo ez eduki nahi lituzketen unean. Honenbestez, konpromiso hau bereganatzen dute Itunaren sinatzaileek: gutxieneko baliabide ekonomikoak bermatuko dizkietela seme-alabak dituzten familia guztiei, haurren pobrezia prebenitzearren; neska-mutiko guztiek haurrentzako arreta-zerbitzu erosoak, merkeak eta kalitatekoak jaso ditzaten ahaleginduko direla; eta neska, mutiko eta gazte guztiek gizarte-, hezkuntza-, kirol-, kultura- eta aisialdi-alorretako baliabide eta ekipamendu gehiago jaso ditzaten bultzatuko dutela; hitzematen dute, halaber, sendotu egingo dituztela gurasotasun positiboko programak, haurren osasunari buruzkoak, gatazkak prebenitzekoak eta familia-bitartekotzakoak, betiere gurasoen heziketa-ahalmenak areagotu, ohitura osasungarriak sustatu eta familia barruko gatazkak konpontzen laguntzeko.

Haurrei eta Nerabeei buruzko Legearen Aurreproiektuak ere haurrentzako politika integralak aldarrikatzen ditu, eta zenbait neurri proposatzen haurren zein nerabeen ongizatea sustatzeko, eskubideak urratzen diren egoerak prebenitzeko eta, egoera horiek gertatzen direnean, arreta eta babesa eskaintzeko.

Bestalde, Lehendakaritzako Gizarte Trantsiziorako eta 2030 Agendarako Idazkaritza Nagusiak bultzatzen duen Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiak, berriz, honako hau proposatzen du: haurren eskubideak babesteko programa bat garatzea, haurren artean aukera-berdintasuna susta dezan, betiere familia-proiektuak eraikitzea xede duen ardatz estrategiko baten inguruan. Proiektu horretan sartzen dira beste bi helburu hauek ere: kontziliazio arduratsurako neazaroak bultzatzea, eta 0-6 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiei laguntzeko tokiko ekosistemak sortzea. Estrategia horren gauzatze nagusietako bat da hileko 200 euroko prestazio bat sortzea hiru urte arteko haurrentzat, eta, aurreikuspenen arabera, 2023ko urtarrilean sartuko da indarrean. Hau horrela, Euskadi izango da Espainiako Estatuan prestazio zuzen, ia unibertsala eta bizitzako lehen hiru urteetan, oraingoz, hezierak sortzen dituen gastuei aurre egiteko behar besteko zenbatekoa ematen duen lurralde bakarra. Adin horretatik gorako haurrek gaur egun indarrean dauden beste prestazio eta kenkari fiskalen esparruaz baliatzen jarraituko dute.

Arlo horretan, azkenik, diru-sarrerak bermatzeari buruzko EAEko araudiaren erreforma aipatu behar da –seme-alabak dituzten familiek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta jaso ditzaketen zenbatekoak nabarmen hobetzen dituena–, baita Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren (BGDS) haur-osagarria indarrean jartzea ere, gaur egun, zortzi mila familiak baino gehiagok jasotzen dutena EAEn.




DATUAK

Euskadiko lau haurretik batek pobrezia jasateko arriskua du, Pobreziari eta Desberdintasun Sozialei buruzko Inkestaren azken emaitzek diotenez (PDSI). Kasurik larrienetan, 0 eta 15 urte bitarteko herritarrek biztanleria orokorrak baino arrisku bi aldiz handiagoa dute, datu horien arabera.


Euskadiko haurrek biztanleria orokorrak baino arrisku handiagoa dute estualdiak, pobrezia eta bazterketa pairatzeko. Datuen arabera, AROPE tasarik handienetakoa duten Europako lurraldeen artean dago Euskadi (%26,8), Europar Batasunekoaren batezbestekoaren gainetik (%22,8) eta Espainiako Estatukoaren azpitik (%31,2).

1. grafikoa. Biztanleria osoaren eta 0-15 urte bitarteko haurren pobrezia- eta bazterketa-adierazle nagusiak Euskadi, 2020



Itazaroa: Pobreziaren eta Gizarte Ezberdintasunen Inkesta.

2. grafikoa. 0-15 urte bitarteko haurrek pobrezia eta bazterketa jasateko arriskuaren Europako azterketa konparatiboa (AROPE) 2020*



Itazaroak: Pobreziaren eta Gizarte Ezberdintasunen Inkesta. EU-SILC.
Oharra: Italiako eta Europar Batasun osoko datuak 2019koak dira.

PGEIan aztertutako oinarrizko adierazleei dagokienez, berriz, hau diote datuek: ongizate-egoeran dauden haurren % 0,6k bakarrik dute gabezia horietakoren bat; pobrezia larria edo ongizaterik eza jasaten duten familietako 1 eta 15 urte bitarteko herritarren artean, aldiz, erdiek baino gehiagok.


Hezkuntza-alorrean, azkenik, hauek dira egoera desegokian dauden ikasle gehienak, bai Lehen Hezkuntzako 4. mailan bai DBHko 2.ean: jatorriz atzerritarrak direnak eta sare publikoan ikasten dutenak, bereziki maila sozioekonomiko eta kultural baxuko adingabeak.

1. taula. 16 urtetik beherako herritarren gabeziak, pobrezia/ongizate larria eskalan familiek duten egoeraren arabera. Euskadi, 2020

	Pobrezia larria	Ongizaterik eza	Ongizate- eta arrisku-elementuak	Ongizatea	Guztira
Ezin du egunero proteinadun otordu bat egin	22,6	7,0	4,0	0,0	3,4
Ezin du egunero jan frutarik edo barazkirik	20,4	4,8	2,0	0,0	2,8
Ezin du oinetako egokirik erosi	8,7	3,3	2,0	0,0	1,4
ARAZO OSO LARRIAK	**26,3**	**11,3**	**4,0**	**0,0**	**4,1**
Ezin du arropa berririk erosi	42,1	32,8	6,7	0,0	7,4
Ez du aisialdirako ekipamendurik (aire zabalerako)	30,7	10,1	2,9	0,0	4,4
Ezin ditu ospatu egun bereziak	37,7	24,5	4,7	0,6	6,6
BESTE ARAZO LARRI BATZUK	**38,2**	**41,7**	**3,8**	**0,6**	**7,5**
ARAZO LARRI NAGUSIAK	**64,4**	**53,0**	**7,8**	**0,6**	**11,6**
Ez du baliabiderik ikastaroa online egiteko	**44,6**	**22,6**	**5,5**	**1,3**	**7,7**

Itazaroa: Pobreziaren eta Gizarte Ezberdintasunen Inkesta.

3. grafikoa. Egoera ezegokia pairatzen duten ikasleen portzentajea*, ezaugarri soziodemografikoen arabera Euskadi, 2019



*Batez ere ikasturtea errepikatzeak eta berandu eskolaratzeak eragin ohi dute egoera ezegokia.
Itazaroa: ISEI-IVEI. Ebaluazio diagnostikoa.

XEHETASUNEZ



Haurren Eskubideak Bermatzeko plan nazionalak prestatzeko gomendioak



Haurren Eskubideen Bermea Espainian aplikatzeko arauak



Garapen Jasangarriko Helburuak eta haurren geroa

Eurochild
Ensuring the European Child Guarantee Helps End Child Poverty: Eurochild Taskforce Recommendations. Brusela, Eurochild, 49 or., 2022. Erref.: 571549.

Harrera ona egin diote Haurren Eskubideen Bermeari neska-mutikoekin eta nerabeekin lan egiten duten GKE-ek, zeinetatik batzuek ekimen propioak jarri baitituzte martxan Europaren konpromiso berri hori betearazten laguntzeko. Eurochild sareak, esate baterako, lantalde bat sortu du plan nazionalen prestakuntzarako gomendioak emateko. 2022ko martxorako dago aurreikusita plan horien aurkezpena, non EBko estatu bakoitzak zehatz azaldu behar baitu zer neurri hartu behar dituen bere lurraldean Haurren Eskubideen Bermea aplikatzeko. Txosten honetan daude Alemaniak, Bulgariak, Greziak, Irlandak, Italiak eta Espainiak osatutako lantalde horrek orain arte idatzi dituen sei txostenak, zenbait arau orokorrekin batera. Ikuspegi politiko zeharkakoa eta osoa aldarrikatzen du Eurochildek, Haurren Eskubideen Bermea martxan jartzeko. Halaber, arriskupean dauden adingabeak detektatzeko prozedura zorrotza eta zehatza izan dadin eskatzen du, eta ez dadila oinarritu adierazle estatistiko baten aplikazioan soilik. Azkenik, hau aldarrikatzen du europar sareak: Haurren Eskubideen Bermearen estatu-mailako planen fase guztietan parte har dezatela hirugarren sektoreko erakundeek, bai eta haurrek eta nerabeek berek ere.

Unicef
Medidas para reducir la pobreza y la exclusión social de los niños y niñas y recomendaciones para la aplicación de la Garantía Infantil Europea en España. Unicef, Europako Batzordea, 123 or., 2021. Erref.: 569398.

Zehatz-mehatz aztertzen ditu Unicefen txosten horrek haurren eskubideak babesteko azken urteotan Espainian garatu diren politika publikoak. Lehenik eta behin, haurren eta nerabeen gabezia ekonomikoak eta materialak jorratu ditu txostenak; ondoren, lehen haurtzaroan neska-mutikoen eskubide hauek babesteko hartutako neazaroak: hezkuntza, zaintza, eskolaz kanpoko jarduerak, irakastegun bakoitzeko otordu bat (gutxienik), osasuna, etxebizitza egokia eta, azkenik, elikadura osasungarria izatekoa. Ekitaldi honetan jasotako esperientzien eta irakaspenen arabera bideratu nahi da Haurren Eskubideen Bermea Espainian; horretarako, zenbait helburu eta adierazle ezarri dira, eta administrazioaren maila guztietan haurrak babesteko dauden eskumenen mapa bat prestatu. Irizpide orokor gisa, hau gomendatzen du Unicefek: «Erakundeen kudeaketa-esparru eraginkorra behar duela Haurren Eskubideen Babesak Espainian, talderik ahulenen beharretara egokitutako erantzun pertsonalizatua, eta jardunbide egokienetan oinarritutako programen lurraldekako ikuspegia».

Clark, H. *et al.*
A future for the world's children? A WHO—UNICEF—Lancet Commission. *The Lancet,* 395 zk., 2020, 605-658 or. Erref.: 554036.

Azken hamarkadetan, nabarmen egin du hobera haurren osasunak, elikadurak eta hezkuntzak baina, hala eta guztiz ere, zalantza asko dago haien geroaz. Klima-aldaketak, migrazio-mugimenduek, gatazkek, desberdintasun orokorrek eta jarduera komertzial kaltegarriek arriskuan jartzen dituzte mundu osoko neska-mutikoen osasuna eta etorkizuna. 2018an, haurren osasuna eta ongizatea Garapen Jasangarriko Helburu berrien (GJH) ardatz bihurtzeko batzorde bat eratu zuten *The Lancet*ek, Unicefek eta OMEk, Milurteko Garapen Helburuen amaierak bultzaturik. Horretarako, 180 estatutako haurren osasun- eta ongizate-adierazleak aztertu zituzten, datuak ikuspegi praktiko batez berrikusiz eta egiaztatuz, betiere ekimen berriak sustatzea helburu zutela. Emaitzen txosten honetan, haurren aldeko politikak aldarazteko zenbait ideia proposatzen ditu Batzordeak. Gomendatzen du, besteak beste, oinarrizko zenbait eskubide bermatzea haur guztiei, berdintasuna ziurtatzeko inbertsioak areagotzea, eta behar den gizarte-mobilizazioa eragitea aldaketa hori gauzatzeko.



Haurren aldeko politikak aztergai

Zenbait egile
Medidas de protección a la infancia en España. *Presupuesto y Gasto Público,* 98 zk., 227 or., 2020. Erref.: 571999.


Haurrak babesteko politikak ditu aztergai 1979tik Ogasun Ministerioak argitaratzen duen *Presupuesto y Gasto Público* aldizkariaren zenbaki horrek, batez ere neska-mutikoak eta nerabeak pobreziatik zaintzeko neazaroak. Ekonomia, soziologia, politologia eta zuzenbidearen ikuspegitik egindako ekarpenak ageri dira monografiko horretan, eta zenbait ikerketa-artikulu; badira, azkenik, kutsu instituzionaleko zenbait testu ere. Haurren aldeko Espainiako politiken azterketa horretan, Haurren Pobreziaren aurka Borrokatzeko Goi Komisarioaren ibilbidea deskribatzen da. Duela urte gutxi sortua da erakunde hori (2018), baina dagoeneko eragile esanguratsu bihurtu da bere alorrean. Azterketa ekonomikoak, bestalde, bereziki interesgarriak dira. Haurren alde erakunde publikoek egiten duten inbertsioa neurtzeko metodologia bat proposatzen da artikuluetako batean; beste batean, berriz, metodologia hori bera aplikatzen da neurri nagusien ondorio finantzarioak neurtzeko. Ekonomiaren alorretik ere aztertu da zenbateraino den babes-adierazle egokia haurren alde egiten den gastu publikoaren zenbatekoa.



Zer da haurren pobrezia, eta nola ezaba daiteke

Marí-Klose, P.
La infancia que queremos. Una agenda para erradicar la pobreza infantil. Serie Mayor, 742. zk., Madril, Los Libros de la Catarata, 222 or., 2019. Erref.: 544350.

Haurren pobreziaren aurkako konpromisoaren adierazgarri, goi-komisariotza bat sortu zuen Espainiako gobernuak, berariaz ekin ziezaion gai horri. Paul Marí-Klose izan zen erakundearen lehenbiziko arduraduna (2018-2019), eta kargua utzi ondoren argitaratu zuen liburu hori, zeinaren bidez azken hamarkadan ikusgai bihurtu den arazoaren larritasunaz ohartarazi nahi izan zuen gizartea. Ia hogei urteko azterketa-, dibulgazio- eta aholkularitza-lanean haurren pobreziaz ikasitakoa laburbiltzen du liburuak, egileak berak dioenez, eta Goi Komisariotzan egindako lana azaltzen. Liburu irakurterraza idatzi du Marí-Klosek, eta han jaso ditu bere esperientzia pertsonalak eta inguru hurbileko jendearenak, zera erakusteko: pobreziaren pean haztea zer den, eta zenbaterainoko eragina duen horrek gizaki baten bizitzan. Haurren pobrezia aztertzeaz gain, gaitz hori amaiarazteko zenbait neurri proposatzen ditu Marí-Klosek, mende honen hasieran Erresuma Batuko gobernu laboristek alor horretan egindako inbertsioen ereduari jarraikiz.




Zer faktorek eragiten duten haurren pobrezia, eta nola egin dakiekeen aurre

Thévenon, O. *et al.*
Child Poverty in the OECD. Trends, Determinants and Policies to Tackle It. Seriea: OECD Social, Employment and Migration Working Papers, 218. zk., Paris, Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundea, 129 or., 2018. Erref.: 551102.

Haurren pobreziari aurre egiteko estrategia eraginkorrenei buruz ELGAk eginiko azken azterketak ditu oinarri ikerketak. Aztertutako herrialdeetatik bi herenetan, areagotu egin da arazoa, haurren pobreziarena alegia. Ez da fenomeno homogeneoa haurren pobreziarena, baina datuek diotenez, adingabe pobreak dituzten familia gehienetan gurasoetakoren batek ez du lanik egiten; bestalde, gora egin du seme-alaba bat edo bi dituzten familia gurasobakarren portzentajeak haurren pobrezia jasaten duten sendien artean. 2008ko krisiaren ondoren diru-sarrera azaroak dituzten familien bizi-baldintzak aztertuta, hau diote emaitzek: gurasoen lan-jarduerarekiko egoera da haurren pobrezian eragin handiena duen faktorea; bestalde, prestazio sozialek nahiko eragin mugatua izan dute adingabeak dituzten familia pobreen ongizatean. Amaitzeko, txostenak dio lanpostu gehiago eta hobeak sustatzen dituzten hazkunde inklusiboko politika integralak behar direla haurren pobreziari aurre egiteko.

XEHETASUNEZ



Europar Batasunean haurren pobreziaren aurkako borroka areagotzeko mekanismoak



Frantzian haurren pobreziari aurre egiteko proposamena



Espainiako familiei diru-sarrerak emateko sistemaren ezaugarriak

Combating Child Poverty: An Issue of Fundamental Rights. Viena, Oinarrizko Eskubideen Europar Batasuneko Agentzia, 57 or., 2018. Erref.: 537585.

Estatu Batuek izan ezik, munduko herrialde guztiek berretsi dute Haurren Eskubideen Ituna; Europan, berriz, badira nazioarteko beste arau eta tresna osagarri batzuk adin-tarte horretako herritarren eskubideak zaintzeko, batez ere pobreziatik babesteko. Honenbestez, agiri hauek aztertu ditu aipatutako txostenak: Europako Batzordearen «Haurrengan inbertitzea: desabantailen zikloa eteteko bidea» izeneko gomendioa (2013), Europako Kontseiluaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna (2017) eta, azkenik, Gizarte Eskubideen Europako Zutabea (2017) eta Europar Batasunaren 2020 Estrategia. Azterketaren emaitza gisa, zenbait jardunbide egoki atzeman ditu agiriak, eta gomendio batzuk egiten ditu haurren pobreziari ekiteko eta borroka horri behar duen lehentasuna eta eraginkortasuna eskaintzeko. Hona proposatzen diren ideietako batzuk: hobetzea haurren pobreziari buruzko datuen bilketa eta monitorizazioa; estatistikak adin-tarteka sailkatzea; pobreziaren aurkako estrategia nazionaletan aintzat hartzea haurren pobrezia; helburu zehatzak ezartzea, eta EBren finantzaketa helburu horiek lortzeari lotzea.

Haut Conseil de la Famille, de l'Enfance et de l'Âge
Lutter contre la pauvreté des familles et des enfants. Constats et propositions du HCFEA. Haut Conseil de la Famille, de l'Enfance et de l'Âge Lutter contre la pauvreté des familles et des enfants, 339 or., 2018. Erref.: 534710.

Zenbait ikuspegitatik aztertzen du haurren pobrezia Familiaren, Haurtzaroaren eta Adinaren Frantziako Goi Kontseiluaren txosten luze horrek. Besteak beste, fenomeno horren eragina gutxitzeko proposamen bat jasotzen du: prestazio selektibo bat ematea maila jakin batetik beherako diru-sarrerak dituzten familiei (horiei bakarrik), Frantziak lehendik ere baduen prestazio familiarren, gutxieneko diru-sarreren eta kenkari fiskalen sistema zabalaren osagarri. Hiru egoera hipotetiko proposatzen ditu azterketako simulazioak: seme-alabengatiko osagarriak handitzea familia ugariei eta gurasobakarrei (*revenu de solidarité active*); seme-alaba bakoitzeko gehigarri bat ordaintzea —soldata osagarri gisa— lansari urriko langileei (*prime d'activité*), eta prestazio espezifiko bat sortzea euren kargura adingabeak dituzten eta maila jakin batetik beherako diru-sarrerak dauzkaten familientzat, ardurapean seme-alabak edukitzeagatik Espainian ordaintzen denaren antzekoa. Bi mila euro ingurukoa izan daiteke horren kostua; haurren pobreziaren tasa, berriz, %5,2 eta %13,6 bitarte jaits daiteke, hots, kasurik onenean 360.000 bat adingabe atera daitezke pobreziatik.

Hernández, A. y Picos, F.
Income Support to Families with Children in Spain. Seriea: *JRC Working Papers on Taxation and Structural Reforms,* 10 zk., Sevilla, Europar Batasunaren Ikerketa Zentro Komuna, 33 or., 2021. Erref.: 565541.


Europako herrialdeetatik, Espainia da haurrek pobrezia jasateko arrisku larrienetakoa dutenetako bat. 2018an, %26,8 zen arrisku-tasa, hots, EBko batezbestekoa baino 6,6 puntu handiagoa. Espainiako lan-merkatuaren langabezia-tasa altuarekin lotu izan da datu hori, seme-alabak dituzten familietan gainerakoetan baino bere horretan irauteko pobreziak duen joerarekin eta, azkenik, gizarte-transferentziek haurren pobrezia gutxiagotzeko duten eragin eskasarekin. Azken faktore hori ikertzeko, familiei diru-sarrerak emateko sistema aztertu dute txostenaren egileek. Azterketaren emaitzen arabera, prestazio ekonomikoen gainetik tresna fiskalei ematen zaie lehentasuna Espainian, Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan ez bezala. Termino absolututan, progresiboak dira dirulaguntzak; zerga-arintzeak, aldiz, erregresiboak. Dena dela, transferentziak —oro har— progresiboak dira, eta aberastasunaren banaketan duten eragina —mugatua— batez ere seme-alabadun familientzako prestazio ez-espezifikoei zor zaie. Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraz, berriz, hau dio txostenak: areagotu egiten duela sistemaren babes-eragina, berariaz familiei zuzenduak ez diren prestazioak sendotzen dituen arren.



Pobrezia, haurren ikuspegitik begiratuta

Rodríguez, A.
La pobreza vivida. Experiencias de niñas, niños y adolescentes en Andalucía. Sevilla, Andaluziako Haurtzaroaren Behatokia, Andaluziako Junta, 2020, 170 or. Erref.: 549489.

Kuantitatiboak dira pobreziari buruzko ikerketa gehienak, baina fenomeno horren alderdi subjektiboak ere hartu behar dira kontuan gaia oso-osorik aztertu nahi bada. Ikuspegi kualitatiboa erabili da lan hau egiteko: 10 eta 18 urte bitarteko 53 lagunek esku hartu dute, zazpi foku-taldetan banatuta. Andaluziako autonomia-erkidegoko ingurune behartsuenetako ikastetxeetan eta gizarte-zentroetan hautazko laginketa bidez aukeratu ziren parte-hartzaileak. Ikerketaren helburuak, berriz, hauek dira: neska-mutiko eta nerabe horien egoera sozioekonomikoa deskribatzea, krisi ekonomikoaz eta pobreziaz dituzten bizipenak eta pertzepzioak aztertzea, jakitea zenbateko eragina duten pobreziak eta prekarietateak haien bizitzan eta, azkenik, haurren pobrezia gutxitzeko haien gomendioak jasotzea. Azterketan esku hartu duten neska-mutikoek tristeziarekin lotzen dute pobrezia; bestalde, arazo ekonomikorik ez duten beste adingabe batzuekiko harremanetan bakardade- eta isolamendu-arazoak dituztela diote, eta euren inguruan aporofobia atzematen dutela. Normala deritzote neska-mutiko horiek pobrezia jasaten dutenak horregatik lotsaturik egotea, eta uste dute eurak egiten dituztela pairatzen dituzten zailtasun ekonomikoen erantzule. Konponbideei dagokienez, dirulaguntza handiagoak eta haien kudeaketa hobea aldarrikatzen dute.



Zenbat kostatuko litzateke Espainian haur-hezkuntzako sistema unibertsal bat ezartzea?

Castellanos, C. eta Perondi, A.C.
Diagnóstico sobre el primer ciclo de educación infantil en España (0 a 3 años). Propuesta de implantación de un sistema de educación infantil de calidad y cobertura universal. Estudio de viabilidad económica de la reforma propuesta y de sus impactos socio-económicos. Seriea: *Papeles de Trabajo,* 3/2018 zk., Madril, Ikerketa Fiskalen Institutua, 140 or., 2018. Erref.: 541774.

Lehen haurtzaroko heziketa eta zaintza (0-3 urte) mesedegarri dira haurren ongizate fisiko eta psikologikorako; horrez gain, hobetu egiten dituzte ondorengo eskola-emaitzak, eta neska-mutikoen aukera sozialak hobetzen, batez ere dirusarrera txikienak dituzten familietakoenak. Hezkuntza-etapa hori unibertsal bihurtzea proposatzen du ELGAk, baina 2015-2016 ikasturtean Espainiako familien erdiek baino gehiagok ezin izan zuten baliabide preziatu hori erabili, arrazoi ekonomikoak zirela medio. Espainian lehen zikloko haur-hezkuntzako sistemaren kostuaren zenbatespena egin du aipagai dugun ikerketa aitzindari horrek, kontziliazio-politikekin lotu, eta zerbitzu unibertsal, doakoa eta kalitatekoa proposatu, eta kostuak zein onurak kalkulatu. Egileen arabera —eta haur-hezkuntzarako sarbidean lurraldeen artean dauden ezberdintasunak alde batera utzita—, 2017an erregistratutako % 35,5eko estalduratik % 72ko estaldura optimora aldatzeko 5.300 eta 7.400 milioi euro bitarte beharko lirateke urtean; aldiz, aldaketak ekarriko lituzkeen onurak urtean 5.700 eta 10.100 milioi euro bitartekoak izango lirateke.



Nola eragiten die haurrei etxerik gabe uzteak?

Te quedarás en la oscuridad. Desahucios, familias e infancia desde un enfoque de derechos. Madril, Hipotekek Kaltetutakoen Madrilgo Plataforma; Enclave Qiteria, 118 or., 2016. Erref.: 521157.

Espainian egiten diren etxegabetzeetatik askok adingabeak dituzten familiei eragiten diete, zenbait kalkuluk diotenez; beraz, aztertu behar da zer ondorio dakarzkieten kaleratze horiek adingabeen garapen familiarrari, sozialari eta eskolakoari. Enclave sarearen ekimenez, haurrei eta etxegabetzeei buruzko ikerketa-lerro bat jarri zuten martxan Hipotekek Kaltetutakoen Madrilgo Plataformak eta Qiteria kooperatibak, giza eskubideen ikuspegitik. Elkarrizketak eta taldekako lantegiak erabili dira txostena egiteko metodologia gisa, eta haien bidez jaso dira etxebizitzatik alde egin behar izan duten neska-mutikoen bizipenak, bai eta haien senideenak eta haurren eskubideak babesten lan egiten duten adituenak ere. Txostenak dioenez, ohartzen dira adingabeak etxegabetzeak eragiten duen hondamen ekonomikoaz, eta sufritu egiten dute berekin dakarren gizarte-bazterkeriagatik eta estigmagatik (gutxi aipatu ohi diren arazoak, biak ere). Hona txostenaren zenbait gomendio: psikologikoki eta emozionalki egoerari aurre egiten laguntzeko tresnak sortzea —berdinen artean eta familietan—, eskolan sentsibilizazioa sustatzea, eta adingabeko horien familien gizarte-babesa sendotzea.




Haurren pobreziari aurre egiteko udalen ekimenak

Lan handia egiten dute udalek haurren pobrezia garaiz prebenitzen eta hari aurre egiten, baina haien ekarpenak ez du beti jaso merezi duen aitortza Europako administrazioko goi-erakundeetatik. Horretaz jabeturik, Eurocities sareak txosten bat plazaratu zuen 2020an, tokian tokiko pobreziaren irismena eta ezaugarriak hobeto ezagutarazi eta udalek fenomeno horri nola ekin jakiteko. Europako 18 herrialdetako 35 hiritan jaso zuen informazioa txostena prestatzeko. Hona pobreziari aurre egiteko eta haurren ongizatea sustatzeko hirien bost jarduera-lerro nagusiak: hezkuntza jasotzeko aukerak eskaintzea; elikadura egokia bultzatzea; osasun fisikoa eta mentala zaintzea; etxebizitza egokiak izatea eta hiri-eremu osasungarriak antolatzea eta, azkenik, haurrek kirol-, kultura- eta aisialdi-jardueretan parte har dezaten sustatzea. Bereziki esanguratsuak diren tokiko ekimen ugariren aipamenak datoz txostenean, eta horietatik hogeita hiruren banakako fitxak daude agiriaren amaieran.

Carey, T.
Fighting Child Poverty in European Cities. Lessons from Cities for the EU Child Guarantee. Bruselas, Eurocities, 64 or. 2020.
Erref. 560165.

Unicef-en ikerketa-zentroa

Office of Research Innocenti
https://www.unicef-irc.org



Innocenti Ikerketa Zentroa arduratzen da haurren eskubideak babesteko Unicefek egiten dituen azterketak bultzatzeaz eta koordinatzeaz. 1988an sortu zen erakundea, eta bere egoitza elektronikoan ageri dira harrezkeroztik egin dituen jarduera guztiak. Argitalpen propioen liburutegi propio zabala du webguneak, zeinak aukera ematen baitu bilaketak zenbait irizpideren arabera egiteko; halaber, albiste-eremu bat dauka, podcasta eta bideo-erreportajeak ere barne dituela («Research Watch» atala).

Jardunbide egokiak haurrentzako programetan

Haurrengan Inbertitzeko Europako Plataforma
https://ec.europa.eu/social/main.jsp?catId=1246



2008ko krisiak baliabide ugari kendu zizkien diru-sarrera urriko familietako neska-mutikoei; honenbestez, haien geroa arriskuan jarri eta gizarte-arrakala areagotu egin zuen. Testuinguru horretan, Haurtzaroan Inbertitzeko Europako Plataforma jarri zuen martxan Europar Batasunak (European Platform for Investing in Children). Haurrak eta haien familiak babesteko eraginkorrak direla frogatu duten programak biltzen eta hedatzen ditu Plataformak. RAND Europa Fundazioak kudeatzen du proiektua, zeinak jardunbide egokien datu-base bat baitauka, informazio-fitxak lurraldeka eguneratzen urtero, eta txostenak, estatistikak, berriak eta deialdiak jasotzen.




Nola bultzatu haurren eta nerabeen parte-hartzea?

Alor judizialean geroz eta gehiago hartzen da aintzat adingabeen ahotsa, baina ez da gauza bera gertatzen arlo politikoan. Haurren Eskubideen Bermeak neska-mutikoen eta nerabeen interes gorena du printzipio gidari, eta hau eskatzen die botere publikoei: bultza dezatela adin-tarte horretako herritarren parte-hartzea haurrentzako politika eta zerbitzuen diseinu, gauzatze eta jarraipenean. Bost helburu ditu Madrilgo Udalak argitaratutako gida horrek: gizartea sentsibilizatzea haurren eta nerabeen parte-hartzearen garrantziaz; esparru teoriko bat eskaintzea, hura martxan jartzeko ereduak eta ikuspegiak barne direla; arauak homogeneizatzea eta prozesuak ordenatzea; egun martxan diren prozeduren eta lanean ari diren profesionalen irismena areagotzea, eta haurren parte-hartzearen gaiari ekitea. Zehatz-mehatz deskribatzen du gidak Madrilgo hirian haurrek eta nerabeek parte hartzeko duten araudi- eta antolakuntza-eremua, zeina erreferentzia egokia izan baitaiteke beste leku batzuetarako. Bestalde, eredu zehatz bat proposatzen du «haurrak protagonista dituen eta bere ingurunean esku hartzeko ahalmena duen parte-hartzeari laguntzeko eta haren jarraipena eta ebaluazioa egiteko».

Cabrerizo, L. *et al.*
Guía para promover la participación infantil y adolescente en la ciudad de Madrid. Madril, Madrilgo Udala, 174 or., 2018.
Erref. 536279.

Haurren eskubideen aldeko partzuergoa


Child Rights International Network
https://crin.org/



Neska-mutikoen eta nerabeen eskubideen aldeko sarerik hedatuenetako bat da, seguruenik, Child Rights International Network. Ezaugarriak: ikuspegi zabala (ikusi «A-Z of children's rights issues» atala), haurren parte-hartzea sustatzeko borondatea, eta jarduera artistikoak eta sormena gizartea kontzientziatzeko tresna gisa erabiltzea (ikusi haren «Projects-ak»). Baliabide interesgarri ugari ditu egoitza elektronikoan; besteak beste, ikerketak, lurraldekako txostenak, gidak eta haurrak babesteko kasu legalen datu-base bat.

Haurrei laguntzeko erakundeen europar sarea

Eurochild
https://www.eurochild.org



Europako 35 herrialdetako ia 200 erakunde eta pertsona biltzen ditu Eurochild sareak, guztiak ere neska-mutikoen eta nerabeen bizi-kalitatea hobetzen saiatzen direnak. Hauek dira sarearen jarduera-lerro nagusiak: haurren eskubideak, lehen haurtzaroko hezkuntza eta zaintza, tutoretzapeko adingabeen desinstituzionalizazioa, eta haurren pobreziaren eta bazterketaren aurkako borroka. Gai horiei buruzko txostenak argitaratu ditu erakundeak, eta buletin bat plazaratzen du, hilero, bere jardueren berri emateko.

Aukerak suspertzen

Konfinamenduak eta pandemiaren azken hilabeteetan eskola-jarduera eten izanak eragindako arazoak Aukerak Suspertzen programa bultzatu zuen Eusko Jaurlaritzak, Inor Atzean Utzi Gabe funtsaren barruan. Hauei zuzendua dago heziketa-laguntza komunitarioko programa hori: EAEko ikastetxe publikoetan edo itunpekoetan Lehen edo Bigarren Hezkuntzako ikasketak egiten ari diren eta gainerako ikasleak baino egoera sozial okerragoan dauden neska-mutiko eta nerabeei. Helburua, berriz, hau da: ikasle horiek hezkuntza-prozesua ez uztea; arrakala digitala txikiagotzea; haurren, nerabeen eta haien familien gaitasunak sendotzea, geroz eta digitalizatuagoa dagoen ingurune batean ikaskuntza-prozesuetan parte har dezaten, eta gurasoek trebetasunak berenganatzea eta indartzea testuinguru horretan haurren heziketari laguntzeko.

Gainerako ikasleak baino egoera sozial okerragoan dauden neska-mutikoei eta nerabeei eskolatik kanpoko hezkuntza-babesa eskaintzen die Aukerak Suspertzen-ek, tokian tokiko gizarte-sarearen bidez. Horretarako, gailu informatikoak eta Internetera konektatzekoak lagatzen dizkie adingabeei eta haien gurasoei, aipatutako laguntza emateaz gain. Mila eta hirurehun bat adingabe artatu ditu programak —horietatik %38 familia gurasobakarretakoak—, eta hirugarren sektoreko hogei erakundek garatu dute. Egun, sendotze- eta hedatze-fasean dago.

ERREFERENTZIAK

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. **COVID-19ak eragindako edo areagotutako arrisku, bazterketa eta/edo pobrezia-egoeretarako "Inor Atzean Utzi Gabe" funtsa.** Eusko Jaurlaritza, 2020, 16 or.

"Aukerak Suspertzen programaren balantzearen aurkezpena". Irekia, 2021/05/05.

Aho-hortzetako arreta, doakoa

Espainiako Estaturako Gazteen Eskubideen Europako Bermea prestatzeko lanetan positibo gisa baloratu izan den ekimenetako bat Haurren Hortzak Zaintzeko Programa dugu (HHZP), Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak bultzatua. Zazpi eta hamabost urte bitarteko neska-mutikoen aho-hortzetako arreta bermatzea du xede programak. «Zerbitzu-txeke» baten antzera funtzionatzen du programak: urtarrilean, onespen-taloia bidaltzen zaie —gutun bidez— zazpi eta hamabost urte bitarteko neska-mutiko guztiei. Ezinbestekoa da taloia urte osoan programaz baliatzeko. Urteroko azterketa egiteko, programari atxikitako zerrendetan ageri diren dentistetako bat hautatu behar da.

Osasun Sailaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren 118/1990 Dekretuak garatutako sistemak —haurrentzako hortz-arreta programa— egokia eta eraginkorra dela erakutsi du azken 32 urteotan. Osasuna eta prebentzioa dute xede programaren protokoloek, zeinek EAEko haurren txantxarra gutxitzen laguntzen baitute. Iturri horien arabera, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako politikari esker EAEko haurren hortz-osasunaren indizeak gure inguruko herrialdeetako onenen artean daude, eta azken hamarkadan nabarmen hobetu da 14 urtera txantxarrik gabe iritsi diren neska-mutikoen portzentajea (%74).

ERREFERENTZIAK

PADI - Haurren Hortzak Zaintzeko Programa. Eusko Jaurlaritza, Osasun Saila [kontsulta: 2022ko martxoak 14]. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/informazioa/haurren-hortzak-zaintzeko-programa/web01-a3infan/eu/

BGDSaren haurrentzako osagarria, eta DSBEa aldatzea

Goitik behera ari da aldatzen seme-alabak dituzten EAEko familientzako laguntza, batez ere pobrezia-egoeran daudenei ematen zaiena. Alde batetik, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera (BGDS) erregulatzen duen Espainiako Estatuko araudiaren aldaketa sartu zen indarrean 2022ko urtarrilaren 1ean: aurrerantzean, hilean 50 eta 100 euro bitarteko osagarria jasoko dute familiek seme-alabengatik, prestazioa kobratzeko eskubidea dakarten adingabeen adina zein den. Zenbatekoak alde batera utzita, aldaketa horrek ekarriko duen berrikuntza nagusia laguntza jasotzeko irizpideei dagokie; izan ere, proposatzen den diru-sarreren baremoa nahikoa altua da: urtean 32.000 euroraino irabazten duten familia-unitateek ere eskura ditzakete prestazioak (esate baterako, beren ardurapean bi adingabe dituzten bi gurasoko familiek). Estatu osoan aplikatuko da aldaketa, EAE barne dela.

Bestalde, beren ardurapean adingabeak dituzten familientzako laguntzen zenbatekoa dezente igotzea proposatzen du Diru-sarreren Bermerako eta Gizarte Inklusiorako Legearen aurreproiektuak, kendu egiten baitu egun indarrean dagoen muga (familia-unitateko hirugarren kidetik aurrerakoa), eta oinarrizko zenbatekoaren %30eko osagarria (140 bat euro) ordainduko zaie titularra ez den unitateko kide bakoitzari eta bigarren helduari. Zerga Koordinaziorako Organoa, berriz, aukera hau ari da aztertzen: Eusko Jaurlaritzaren egungo kenkari fiskalen eta seme-alabengatiko laguntzen integrazioan aurrera egitea, seme-alabengatik ematen diren laguntzen eredua berrantolatzeko prozesu zabal bati jarraikiz, eta zenbatekoak handitzea.

ERREFERENTZIAK

Guía sobre el nuevo complemento a la infancia del IMV. *Revista de la Seguridad Social,* Secretaría de Estado de la Seguridad Social y Pensiones [kontsulta: 2022ko martxoak 14]. Hemen eskuragarri: https://revista.seg-social.es/-/gu%C3%ADa-sobre-el-nuevo-complemento-a-la-infancia-del-imv

Jefatura del Estado, Ley 19/2021, de 20 de diciembre, por la que se establece el ingreso mínimo vital. BOE, 21/12/2021.

Haurreskolen prezioa, merkeagoa

Haurren pobreziari eta bazterketari buruzko literaturak nabarmendu duenez, oso garrantzitsua da eskuhartze goiztiarra, hots, haurraren bizitzako lehenbiziko mila egunen barrukoa. Familien eta Haurren aldeko Euskal Itunak honekin lotzen du lehen haurtzaroko inbertsioa: emakumeek lan-merkatuan eskuhartze handiagoa izatearekin, jaiotza-tasa handiagoarekin, jatorri sozioekonomiko desberdinetako neska-mutikoen arteko aukera-berdintasuna hobetzearekin eta, azkenik, ezagutzaren gizartea deritzonaren beharrak hobeto asetzearekin. Oso altua da, Euskadin, 0-3 urte bitarteko hezkuntza-zikloa erabiltzen dutenen tasa, baina lanean jarraitu behar da hezkuntza-etapa horretako kalitatea eta eskuragarritasuna bermatzeko.

Hori dela eta, diru-sarrera urrienak dituzten familiei 0-3 etaparako irispidea hobetzeko bi neurri ezarri ditu Haurreskolak Partzuergoak, zeina Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren mendekoa baita. Alde batetik, 2018an zero kuota ezarri zuen urtean 18.000 euro baino gutxiago irabazten duten familientzat. Bestetik, 2020an %10 jaitsi zitzaien kuota 10.000 eurotik beherako errenta estandarizatua dutenei (1. tartea). Hori guztia dela eta, 160 eurotik (2018) 112 eurora (2020) jaitsi da familiek Haurreskoletan izena emateko egin behar duten ekarpenaren babez besteko zenbatekoa.

ERREFERENTZIAK

Haurreskolak. Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila [kontsulta: 2022ko martxoak 14]. Hemen eskuragarri: http://www.haurreskolak.eus/



2022 | AZAROA

GZ

GIZARTERATUZ monografikoak

Edukiak

SIIS GIZARTE INFORMAZIO ETA IKERKETA ZERBITZUA

Argitalpena

BEHATUZ. GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL BEHATOKIA

Diseinua, ilustrazioa eta maketa

Concetta Probanza

Lizentzia

Dokumentu honek Creative Commons Aitortu-EzKomertziala 4.0 Nazioarteko Lizentzia du

BEHATUZ
GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL BEHATOKIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES